

**IKERTZAILEAK ERAKUNDE ETA ENPRESEKIKO
LANKIDETZAZ PRESTATZEKO LAGUNTZA DEIALDIA
(2022):**

Onartutako eskarien behin betiko zerrenda

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (IGBB) ontzat eman ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak deialdi hau argitaratu zuen:

**IKERTZAILEAK ERAKUNDE ETA ENPRESEKIKO LANKIDETZAZ PRESTATZEKO
LAGUNTZA DEIALDIA (2022)**

Deialdiko 5.1 oinarriak dio zortzi kontratu eskainiko direla modalitate honetarako. Eskariak aurkezteko epearen barruan bost aurkeztu dira.

Ikusi da eskariak betetzen dituztela oinarrietan zehaztutako gutxieneko baldintzak, eta eskatzaile guztiek aurkeztu dituztela eskatutako agiriak.

Beraz, aurkeztutako eskari kopurua eskainitako kontratu kopurua baino txikiagoa denez, ez da beharrezkoa egitea eskarien ebaluazioa, laguntzak emateko hurrenkera zehazteko.

Adierazitako guztia kontuan hartuta, ERABAKI DA agindua ematea argitaratzeko errektoreordetzaren webgunean onartutako eskarien behin betiko zerrenda.

UPV/EHU_n AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Eskatzaileek jakinarazi egin beharko dute laguntza onartzen duten ala ez, mezu elektronikoko bat bidalita helbide honetara: solicitudes-pifindustrial.dgi@ehu.eus

Laguntza onartzen duten pertsona hautatu guztiek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute ikerketako errektoreordetzan, azaroaren 26tik abenduaren 16ra):

- Eskarian aipatutako doktorego programako matrikularen gordekina.
- Erakundeko ordezkari legalak sinatutako [hitzarmenaren](#) bi ale. Webgunean dagoen ereduan ezin da egin aldaketarik.
- Kasuan kasuko ikerketako etika batzordearen aldeko txostena, ikerketa proiektuaren gaiak hala eskatzen duenean.
- Deialdian hautatutako pertsonak eta erakundeak izenpetutako kontratuaren kopia.
- Deialdi honen hautatutako pertsona gisa dituzten betekizunak onartzeko dokumentua, tesiaren zuzendarikideek ontzat emana.

ESKATUTAKO AGIRIAK EPE BARRUAN AURKEZTEN EZ BADIRA, DIRULAGUNTZARI UKO EGITEN ZAIOLA ULERTUKO DA.

Dokumentazioa aurkezteko aukerak:

- UPV/EHUko erregistro bulegoetan (Esteka honetan kontsultatu daitezke UPV/EHUren erregistro bulegoen helbideak eta jendaurreko ordutegiak: https://www.ehu.eus/eu/web/idazkaritza-nagusia/erregistroorokorra_ordutegia).
- UPV/EHUren Egoitza Elektronikoa dagoen erregistro elektronikoa bidez. Ikerketaren arloko Errektoreordetza hartzaile gisa aukeratuta behar da eta

eskatutako dokumentazio gehigarria erantsi
(<https://egoitza.ehu.eus/eu/registroelectronico>).

- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduetako batean.

Laguntza ordaintzeko, behar bezala aurkeztu beharko dira gorago aipatu diren dokumentu guztiak. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak dokumentu horiek gainbegiratuko ditu, eta laguntza ordainduko du egiaztatu ondoren eskatzaileak eta enpresak betetzen dituztela deialdiko oinarrietan aipatutako baldintza guztiak. Kasu horretan baino ez zaio bidaliko eskatzaileari banakako ebazpena.

ERREKURTSOAK:

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1. Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Administrazio errekurtsor hori jarritz gero, eta errekurtsor jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsor ezetsizat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsor jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsor ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik aurrera kontaktzen hasita (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: 123 eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2. Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsor Bilboko administrazio auzietarako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera kontaktzen hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

Leioa, 2022ko azaroaren 25a.

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETAREN GESTIOKO ZUZENDARITZA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA

Onartutako eskarien behin betiko zerrenda

KODEA	NAN	EMAITZA
PIFIND22/01	Y8389502	EZ ONARTUTAKO ESKAERA
PIFIND22/02	45915313E	ONARTUTAKO ESKAERA
PIFIND22/03	78947628J	ONARTUTAKO ESKAERA
PIFIND22/04	45820690K	ONARTUTAKO ESKAERA
PIFIND22/05	G23675465	BAZTERTUTAKO ESKAERA